



↑ Apolonija Šušteršič.

# *Hondamendia berrantolatzen*

2001eko apirilaren 3ko New York Times-en berria:

«Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministro Pilar del Castillo eta Galiziako Xuntako Lehendakari Manuel Fraga Iribarnek jakinarazi egin dituzte Galiziako Kulturaren Hiria (GKH) egiteko planak: proiektuak 810,000 oin koadroko azalera hartuko du (75.250 m<sup>2</sup>), 175 milioi dolarreko aurrekontua izango du (145 milioi euro), eta mundu alorreko ospea duen Eisenman Architects bulegoa arduratuko da diseinuaz. GKHak, munduan garatzen ari diren kultur konplexu handienetako bat, frogatzen du berriro ere gero eta handiagoa dela Espainian kultura alorrean egindako inbertsioa, garapen ekonomikoaren tresna den aldetik. «Bilbo efektua» delakoaz (hala esaten zaio hiri horri Guggenheim Museoak eman dion ospeagatik) fidatuta, Galiziako Autonomi Erkidegoak, Espainiako ipar-mendebaldeko muturrean kokatua, espero du bere Galiziako Kulturaren Hiriak, ausarki garaikidea bera, turismoari bulkada ematea eta aldi berean bertako kultura eta hezkuntza alorreko eskaintza aberastea».

Autoz igotzen ari ginen Gaia mendira. Azaroko egun zoragarria zen. Kulturaren Hiria Galiziako kultur zentroaren bisitaldiak bertan behera geratuak ziren. Gobernu berriak denbora behar du nola jarraitu behar duen pentsatzeko. Proiektuak ezin sinesteko moduan irensten du dirua. Ez dago argi, edo ez da oraindik jendaurrean esan, nork programatu behar duen espazio berria, zeinak bere baitan hartzen baititu galiziar liburutegi berria, Galiziako historiaren museo bat, zentro teknologiko bat, kontzertu areto bat eta egunkari artxibo bat. Baliteke dirua izatea eraikina bukatzeko, baina nork ordainduko du erakunde berrien kudeaketa, eraikita dagoenean?

Baimen berezia eskatu behar izan genuen orubean sartu ahal izateko. Sumendi baten kraterra ematen du erupzio baten justu ondoren. Giro lasai isila dago, itzelezko txikizioa gertatu dela garbi egon arren. Beranduegi! Hondamendi lekua da hau.

«**Hondamendiak** dena alferrik galtzen du, baina aldi berean ukitu gabe uzten du dena. Ez du eraginik ezein pertsona berezirengan; «ni» ez nau mehatxatzen, bizia barkatzen dit, albo batera uzten nau. Halaxe naiz mehatxatua; halaxe mehatxatzen du hondamendiak nigan nigandik kanpo dagoena, ni ez bezalakoa dena, pasiboki beste bilakatzen naizelako. Helmenez

kanpo geratzen da urrutitik mehatxatzen duen pertsona, edo bertatik bertara, ezinezkoa da jakitea: mehatxuaren infinitutasunak muga oro hautsi du nolabait. Hondamendiaren ertzean gaude, etorkizunean kokatzeko gauza ez garela».

Maurice Blanchot, *The Writing of the Disaster*.

Peter Eisenmanek berak, Galiziako Kulturaren Hiriaren arkitektoak, hondamendiak aipatzen ditu bere idazkietan. Pentsatu ote zuen inoiz, metaforak aparte, bere lanak berak hondamendiak sortu eta eragin zitzaizkela? «Sarri aipatzen du *The Writing of the Disaster*; Maurice Blanchoten funtsezko testuetako bat, eta haren arkitekturak errefusarekiko lilura zorrotz bera erakusten du, hustasunaren errotiko bilaketa bera, ezerezeranzko berariazko zorabio bera; baina orobat paradoxarako, hitz-jokoetarako, formalismo konplexu bateranzko joera bera» (Codex, 17. o.). Esamolde kontzeptualak dira horiek, baina litekeena da arkitektoak inoiz ez pentsatzea bere obra hondamendia izan zitekeenik edo inolako txikiziorik eragin behar zuenik. Edo, beste aldetik, are harro ere senti ote zitekeen bere lanari hori gertatzeaz, hau da, bera edo bere lana hondamendi baten kausa izateaz? Azken buruan, arkitekturak berehalako efektua eragingo luke: Santiago de Compostela hiriak oso luzaro jasan beharko duen efektu mota.

Ezin esan dezaket Galiziako Kulturaren Hiria hondamendi bat denik oraindik bukatu gabe dagoelako. Hala ere, sinesten oso zaila da (proiektuaren parametro eta baldintza askoren arabera) arrakasta izango duenik. Kasu honetan ez dut zalantzan jartzen Gaia mendiaren muinoko arkitekturaren irudikapen formala, Peter Eisenmanek diseinatua, baizik eta areago **kultur erakundeen zentralizazioa** mega-egitura baten barruan, zatitze topologikoa eta eskala txikiko kokalekuak mendeetan barrena ezaugarri izan dituen landetan.

Galiziako landak, Espainiako ipar-mendebaldeko muturrean kokatuak, ezagunak dira herrixka eta hiritxo anitz daudelako bertan, muinoetan sakabanatuta. Eredu horrek adierazten bide du halaber Galizian bizi den jendearen mentalitatea, zentzu askotan. Alabaina, kasu honetan ez dirudi inork pentsatu duenik testuinguruaren garrantziaz dagoen eguneroko kulturaren.

Proiektu osoa bilbatzen da konnotazio sinbolikoen hizkuntza izugarri sofistikatuarekin, batez ere lekuaren gertakari historiko nabarmenenaren ingurukoak: Santiago apostoluaren presentzia. Santiago de Compostelan aurkitzen dira Erdi Aro garaiko kodex garrantzitsuenak, Codex Calixtinus izenekoak, Calixto II. Aita Santuaren omenez. Bost parte ditu, gehienbat Santiago apostoluaz dihardutenak. Azkeneko parteak, «erromes bidaiariarentzako gidaliburua», izan zuen Peter Eisenmanen inspirazio iturburu tamaina itzelezko bere proiektua sortzeko orduan. Apostolu gizagaixoa! Gehiegi erabiltzen da hura eta haren historia. Entitate izugarri espiritual hori materializazio hutsalen bidez irudikatzen da, soil-soilik merkatura bideratua. Gaur egun garbi dago edonorentzat Santiago de Compostela hiri ederra turismo helburu ospetsu bihurtu zela bere historia aberats eta garrantzitsuari esker. Kulturaren oinarritutako turismoa eskualde osorako bulkada ekonomikoetako bat



↑ Apolonija Šušteršič.

bilakatu zen, ez Galizian bakarrik, bai mundu osoan zehar ere. Egia da! Eta Kulturaren Hiria ideia horretan oinarritzen da: turistak erakarriko dituzten kultur erakundeak eraikitzea, haiek dirua ekarriko dute eta horrek lan gehiago emango du eta ekonomiak aurrera egingo du. Eszenategia argi dago, eta funtzionatu ohi zuen!

Non eta... posizio garrantzitsuetan zegoen jendeak, arkitektoak barne, gaizki ulertu ez zuten eskalaren ideia testuinguruari dagokionez. Michael Keating-ek *Rethinking the Region* bere artikuluan idazten duen bezala, «lurraldeen nolakotasunak kokatze eta azpiegitura kontuetatik haratago doaz, bai tokiko ekonomiaren eraikuntza sozialean sartu ere. Horretan eragin handia izan du soziologia ekonomikoak (Swedburg 1993), «merkatuaren eraikuntza soziala» lanak, eta kapitalismo eredu desberdinen inguruko eztabaidak. Horren guztiaren helburua izan da frogatzea ez dagoela onena den produkzio molde bakar bat, kapitalismoa sozialki txertatuta dagoela eta forma desberdinak hartzen dituela leku desberdinetan, eta merkatua, beste zenbait fenomeno sozialen antzera, giza produktu bat dela, eta berak ere testuinguru desberdinetan forma desberdinak hartzen dituela. Orduan, lurraldea bihurtzen da ez kokapen huts, baizik eta harreman, jokabide eta arau sozialen konplexu oso baten oinarri». Horrek argitasunez erakusten du «Bilbo efektua» ezin dela berriro gertatu besterik gabe dagoen eredia berdimentsionatu eta birkokatuz.

Testuinguruarena gaizki ulertzea Galiziako Kulturaren Hiriaren kasuan ez zaio gertatu bakar-bakarrik arkitekto iparramerikarrari, baita eskaria egin zenean agintean zeuden bertako politikariei eta beste zenbait profesionali ere. **Dirua, agintea eta hilezkortasunaren aldeko borroka** izan dira proiektuari hats eman dioten indar nagusiak. Inor ez da mintzatzen nola inplika lezaketen galiziar jendea —bertako kultura sortu eta ordezkatzeko duen jendea, kulturaren beraren parte bat dena— proiektu honetan. Kultura finantzatzeko duen jendeak ez zuen erabaki halako kultur mega-egitura bat eraikitzea; garbi dago erabakia goragoko maila politikoko batean hartu zela; erabakia hartu zuen jendeak beren buruari monumentu bat egin nahi zion. Kasu honetan ere aurrean dugu huts egindako demokraziaren adibide ugarietako beste bat.

«Baina hori ez da arkitektoaren errua», argudia lezake norbaitek, «bezeroaren baldintzak betetzen ari da, besterik gabe». Arkitekto bat mugatu beharko al litzateke bezeroari entzutera eta hark nahi duena egitera inolako asmo kritikorik gabe, erantzukizun moral zein etikorik gabe, ezta bere buruaren aurrean ere? Arkitekto lanbidean **kode moral** bat baldin bazegoen, haren lekua negozioen kodeak hartu du orain. Horrek operazio alor oso mugatu eta ez-kritiko batera eramaten du lanbidea. Zerbitzu bat bihurtzen da, besterik ez, haren premia izan dezakeen edonorentzat —errege, apaiz zein lapur— eta edozein ideologiatara moldatzen da.

Giancarlo De Carlo-k dioenez, jarrera konformista izan da arkitektoak Historian zehar jokatu izan duen papera. Garai historiko desberdinetan, aginte politikoak hartaz egin zezakeen erabileraren arabera, arkitektoa izan da gehiago igeltsero, edo gehiago Jainko. Baina garai guztietan, haren paperaren

garrantzia bat edo bestea izan, arkitektoa beti egon da lotuta agintea zeukatenek zuten munduaren ideiare. Horrenbestez, zalantzan jarri beharko genuke arkitekturaren sinesgarritasuna, baita gaur egun ere, baita Galiziako Kulturaren Hiria bezalako proiektu baten barruan ere, helburu garaiak ordezkatzeko dituenak, antza.

«Aldi berean, orain arteko ekoizpen arkitektonikoan agintzen zuten ikusmolde morfologiko zein estrukturalak eta tresna operatiboak zalantzan jartzen dira. Erakundeen kulturak eta praktikak ezabatutako aldagai multzo handi bat berriro jokoan sartu da, eta arkitekturak diharduen errealitatearen alorra gauza makroskopiko eta konplexu bihurtzen da».

Giancarlo De Carlo.

Beraz, zenbait galdera egin behar nizkion neure buruari Gaia mendira bisitan joan nintzenez Galiziako Kulturaren Hiri berria eraikiko zen orubea ikustera:

Azken batean arkitektoak sortu al du hondamendia? (metafora zein analogia sinbolikorik gabe, mesedez!). Nork ipini du egoera izugarri desatsegin horretan? Arkitektura lehiaketako parte-hartzaile xarmagarrietakoren batek berriro aztertu al zuen programa testuinguruaren argitan? Zergatik ez zuen inork protestarik egin?

Ba al dago Kulturaren Hiriaren proiektuan txertatutako hizkuntza sinbolikoaren aberastasuna balioetsi eta haren sortzaileez errukituko den beste Jainkoren bat?

Amen.

---

Erreferentziak

*CODEX The City of Culture of Galicia*, Cynthia Davidson (arg.), The Monacelli Press Inc., New York, 2005.

*The Writing of the Disaster*, Maurice Blanchot, U. of Nebraska Press, Nebraska, 1995.

«Rethinking the Region. Culture, Institutions and Economic Development in Catalonia and Galicia», Michael Keating, ECPR Workshop, *Regionalism Revisited. Territorial Politics and the Age of Globalization*, Mannheim, 1999ko martxoan.

*Architecture & Participation*, Peter Blundell Jones (arg.), Doina Petrescu (arg.) eta Jeremy Till (arg.), Spoon Press, New York, Abingdon eta Oxon, 2005.

Prentsa albistea, asteartea, 2001eko apirilaren 3a, 21:00 GMT, PR Newswire-k banatua The Kreisberg Group-en ordezkartzan.